



Astelehena, 2014-01-20

hitza info
Donostiako informazioa euskaraz

ZUREA DA HITZA

Nabigazioa ☰

Txotx egin dute Bulebarrean

by Agurtzane Altuna on 2014/01/18 in HIRIA



Sagardogile honek tanta bakar bat ere ez du bota lurrera. (Argazkia: Agurtzane Altuna)

Txotx denboraldi hasierako azoka egin dute Bulebarrean inguruko sagardogileen lana ezagutarazteko.

Sagardo uza berria San Sebastian eguna inguruan hasi eta apirila bukaera arte dastatu daiteke txotx eran. Sagardoa botilaratzeko ohiturarik ez zen garaian, kupela ireki eta bukatu arte edaten zen bertatik, normalean pitxarretan hartuta. Txotxaren ohitura berriagoa da; 1950 urte inguruan, Donostiako elkarte gastronomikoek eskaturik, sagardoa botiletan sartzen hasi ziren lehen aldiz.

Elkarteetakoak, jatetxeetakoak edo tabernariak ziren sagardoa aukeratzera joaten zirenak, eta ia ez zitzaien kobratzen. Urteik urtera ordea, gero eta jende gehiago joaten zela eta, otorduak kobratzea erabaki zuten. Orduan, askok janaria eramaten zuten bertan prestatzeko. Horrela hasi zen pixkanaka txotx garaia indartzen egungo egoerara iritsi arte.



Sagardoa egiteko behar diren tresnak ere erakutsi dituzte. (Argazkia: Agurtzane Altuna)

📍 **azoka. Sagardoa. sagardotegiak. Txotx**

Behemendik antoltu duen gaurko azokaren helburua sagardoaren eta sagardotegien promozioan laguntzea izan da, asko baitira donostialdeko ekoizleak. Sagardogile horietako batzuk izan dira gaur Bulebarren, bere etxeko produkturik onenak erakusteko. Hala, sagardoa eta muztioa dastatu eta erosteko aukeraz gain, azokara gerturatu denak sagardogileen eskutik ezagutu ahal izan ditu bakoitzaren lan egiteko modua, aurtengo uztaren ezaugarriak, sagardoaren prestaketarako lanak etab. Sagardoari laguntzeko, berriz, txorizo pintxoak eta 'Euskal baserriko oilaskoa' eskaini dituzte.

Helduenek sagardoa dastatzen zuten bitartean, txikienek aintzinako jolasak probatzeko aukera izan dute.

◀ Festa giroan egin dute urteko lehen kantu jira

Danbor soinuz bete dute Zorroaga ▶

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email Not published